

# «Badirudi kritikariak lehenago daudela artistak baino»

Erregela oker bat erabiltzen zuen maisuak, egurrezko metro bat metrokoa izateko puska bat eskas zitzaiona. Harekin pintatzen zituen gorritz hatz punttetan dardaran zetozen azazkal guriak. Harekin makillatzen zituen urdinez aurpegi zurietako begi ertz eroriak. Frankista baten portretak. Baina Keixeta txikiari errespetua zion pintzel gogor hark, ez zen sekula hunkitzera ausartu, bazekielako bera baino hobea zela margotzen, eta batez ere finagoa.

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Txomin Txueka

**Haurrak izaten omen dira artistarik onenak. Zu, haurra zinela, nolako artista zinen?**

Hamalau urterekin nire bizioa igande goizean trena hartu Arroan eta San Telmo museora joatea zen. Sarrera ordaindu, San Telmon buelta-txoa eman, eta eguerdirako bazkaltzera etxera itzultzen nintzen. Hori baino lehen, nire gurasoak oso elizkoiak ziren eta urtero Arantzazura joaten ginen. Eta zortzi urterekin, Arantzazun, Oteizaren deformazio hura ez nuen oso ondo ulertzen, apaizak zer esaten zuen ere aztarrenik ez nuen, mezak oso luzeak eta aspergarriak ziren, baina elizan dagoen Lucio Muñozen frisoarekin oso ongi ulertzen nintzen, zortzi urte nituenerako izugarri transmititzen zidan hark. Geroztik askotan esan izan didate zerikusia baduela nire lanak Lucioenarekin.

**Baina hasi, zeramikarekin hasi zinen.**

Parean tokatu zelako. Baina hogeitau urterekin Arroan nire lanerako estudioa sortu nuenean, Iñaki Kruzeta margolari bilbotarra ezagutu nuen. Oso margolari ona, eta Arroara hurbildu zen niregana. Elkarlan bat sortu genuen, nik hari zeramika erakutsiko nion, hark niri margoa. Oso istorio polita bizi izan genuen, eta bera izan da pinturan nire benetako maisua eta gehien markatu nauena.

**Zer erakutsi zizun?**

Pintatzen baino gehiago pinturaren mundua zer den. Nire estiloa banuen, nire bidea, baina pintura munduan bizitzen berak erakutsi zidan. Orduan ulertu nuen pintatzea, edo profesionala

izatea, ez dela pinturak emandakotik bizitzea, pinturari emanda bizitzea baizik. Alegia, pintura bizibide bat baino gehiago bizimodu bat dela.

**Eguneko hogeita lau orduetan margolaria zara?**

Bai, hala naiz. Baita lo nagoela ere.

**Orain ez al zaizu inoiz tentaziorik sortzen zeramikara itzultzeko?**

Bai, nire ustez elkarren osagarri baitira zeramika eta pintura. Pintura bolumenak asko jantzen du, eta bolumenarentzat kolorea lagun ona da. Arazoa da zeramika artisautzat hartzen dela, pintura artearekin lotzen den bezala, zeramikan artisautza ikusten da. Nahiz zeramikarekin benetako artistak badiren, eta Txillidak eta Oteizak berak ere eginak dituzten zeramikarekin arte lanak. Nik ere badut lan bat zeramikan egiten ari naizena, baina oraindik erakutsi gabea. Aurpegiaren estudio bat osatua dut, adierazkortasuna lantzeko sortutako jolasa,

## Nortasun agiria

Txiki Agirre 1963ko urriaren 26an jaio zen Arroa Behean, Gipuzkoan. Bertako eskola frankistan ikasi zuen, hamaika-hamabi urtera arte, gero Zestoara pasa zen, gero Zumaiara, eta handik Eibarko Laboralera ikasketa teknikoak egitera. Unibertsitatea aberaskumeen kontua zen orduan. Eibarren, hamazazpi urterekin ikasle izatetik irakasle izatera pasa zuten. Orduan hasi zen zeramikarekin lanean. Handik Aiako tailer kolektibora pasa zen, eta hogeitau urterekin bere kontura plantatu zen Arroan estudio propioan. Orain Zumaiara bizi da eta Zumaiara du estudioa, Oxford aretoan. Bere ibilbide luzean, zeramika, eskultura, pintura eta denetik landu du. Sari bat baino gehiago ditu irabaziak, besteak beste Ordiziako Goiart saria. Egunotan Donostiako Oken-do galerian daude bere azken obrak ikusgai.

A close-up portrait of Txiki Agirre, a man with short dark hair and a goatee, wearing a green long-sleeved shirt under a black vest. He is looking directly at the camera with a slight smile. The background is blurred, showing warm, golden light.

Txiki Agirre  
"Keixeta"



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

PHOTO © TXOMIN TXUEKA

ehun aurpegi espresio baino gehiago ditut zeramikaz eginak. Baina oraindik ez dut bukatutzat eman. Bukatzerakoan erakutsiko dut.

### **Paper zuriaren aurrean nolako aurpegia jartzen duzu zuk?**

Ikara aurpegia. Paper zuriaren aurrean idazleak hutsari dion paniko hori sentitzen dut. Ordutan hortxe egoten naiz, eserita, lurreko paperari begira. Bion arteko komunikazio bat dago. Batzuetan egun osoa pasatzen dut, haserre, nondik hasi ez dakidala, amorruez. Denbora galtzen ari naizela iruditzen zait. Idazleak hitz bat jartzen duen bezala nik zuriaren gainean beste paper zuri bat kolatzen dut, eta horren ondoren beste bat eta beste bat, eta hala collage-aren teknikan konposizioa osatu arte. Eta ondoren sartzen da kolorea. Bota egiten dut paperaren gainera, eta batetik bestera eramaten, gora eta behera joanarazten. Koadro batek kargak izaten ditu, eta nolabaiteko oreka lortu behar da, konpentsazioekin jolasten dut. Lehenik lurrean egiten dut lana, papera lur gainean zabaldua, eta gero pasatzen dut gora, bertikalera. Hor azaltzen dira akatsak, eta brotxak edo aerografoak erabiltzen ditut horiek zuzentzeko.

### **Pinturak bere bidea ere egingo du batzuetan...**

Bai, hori lanaren zati garrantzitsua da, pinturak bere bidea egiten duena, nik kontrolatu ezin dudana zati. Baina esperimentatuz zati hori ere

gero eta kontrolatuagoa da, gero eta nire aginduetarago dago, beraz bere bidea bakarrik ez, bion bidea da.

**Bere bidea egiten duenean inteligentea da pintura?**  
Bai, naturala da, eta naturala den guztia da inteligentea.

**Idazleari hitz batek traba egiten dionean oso erraz ezabatzen du. Margolariak zuzen dezake koadro gaineko arrasto oker bat?**

Hemen ez da posible, nahiago dut dena ezabatzea, folio guztia hartu, zakarrontzira bota eta berriz hasten naiz idazten. Erraz egiten dut hori.

### **Ez du minik ematen?**

Ezta batere, alderantziz, ikusteak ematen dit mina.

### **Non aurkitzen dituzu inspirazio iturriak?**

Inguruak inspiratzen nau. Bizi naizen tokia, Zumaia ingurua, oso berezia da, itsasoa bertan daukat, mendiak ere bai, eta lana egiterako orduan inguruak asko inspiratzen nau. Nire obratan ura dago, ura beti presente, itsasoa.

### **Garai batean paisaia-margoen aurkako amorratua zinen.**

Artista askok paisaia saltzeko landu izan duelako, saltzeko baino ez. Baina Gorritik egun batean Aralarri buruz erakusketa bat egitera gonbidatu ninduen, eta bide batez Aralarko borda batean artzain batekin bizitzera. Orduan itzuli nintzen paisaiak margotzera, zuhaitzak, mendiak, harriak, Aralarko natura, eta lan harekin paisaiari hartua nion mikatza goxatu zitzaidan. Orduan, gero eta garbiago ikusten dut naturak eta paisaiak nire obra abstraktuan duen zerikusia. Gero eta garbiago ikusten ditut itsasoaren limiteak, flyshak marcatzen dituenak, hor daude beti.

### **Askotan galdetuko zizun jendeak zergatik ez duzun jotzen forma figuratiboagoetara?**

Abstrakzioak haur izatera itzultzen zaitu, askoz ere libreagoa naiz abstraktuan, figura-





PHOTO © TXOMIN TXUEKA

zioak beti mugatzen zaitu zerbait den bezala egitera.

**Hautzarora ez baina gaztarora itzuliko zaitut: 80ko hamarkada Euskal Herriko kostaldean bizitzeko nahiko garai gogorra izan zen.**

Bai, baina gogorra izan arren ilusioz bizi zen eta bazegoen halako esperantzaren indar bat. Lehenagoko tristura gainditua zegoen, eta etapa berri bat hastera zihoan.

**Nik drogagatik esaten nizun. Europako toxikomano indize handiena Euskal Herrian zegoen.**

Bai, hala da. Nire adineko jendea jo zuen garai hark. Erreterria batean, edo Ermuan, edo Zumaian, garai latza izan zen hura. Itziarko Mandiopen ere erdia hila egongo da. Baina Arroa herri marjinalagoa zen, irla independente batean bezala bizi ginen, abangoardiatik aparte, eta uste dut horrek salbatu ninduela ni, horrek eta beste lehentasun batzuk edukitzeak, beste bizio batzuk. Batetik margotu egiten nuen, eta bestetik lan sozialean eta politikoan ere parte hartu nuen. Gainera ez nuen sekula barrabilik eduki ziztatzeko, beldurrak salbatu ninduen.

**Zer zen garai hartan hogeitau urte edukitzea?**

Dena libre zen. Gu kontzertu punkyeta joaten ginen, La Polla ikustera, eta han %80a *jonkia* zen. Orduko abangoardia drogazaleak ziren, *jonkiak*, ausarta izan behar zen eta potroak zituenak heroina hartzen zuen, ziztatu egiten zen. Libertate eta konfusio garaiak ziren, eta libre izatea drogatzea zen, *desmadratzea*, “ni naiz hemengo *guayena*” esatea. Oso garai gogorra izan zen, baina gaur egun ere kontua antzera samar dagoela uste dut, pastillekin gazte jende asko dago erabat burutik joana, neuri gertatu zait Zumaian egunero samar ikusten nuen jende bat derrepente desagertu eta etxean lur emana ikustea. Ez nuke esango gaur egun gazteriaren egoera ordukoa baino hobea denik.

**Zergatik ez da idatzi garai hartako historia?**



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

Ezkutatu egin nahi izan da. Batetik gurasoek eta familiek ez dute nahi azaltzerik, etxean drogazale bat edo HIESdun bat edukitzea mantxa iluna da, lotsagarria. Gaindosia ere ez da sekula onartu gaindosi moduan, gaindosia beti izan da bihotzeko atake bat eta kito. Beraz, lehenik familiaren lotsak ezkutatu zuen. Eta bestetik, probokatua izan zela argi dago, mugimendu handia zegoen orduan, bilerak eta borrokak eta istorioak, indarra genuen, gauzak aldatzeko ilusioa, eta hori dena gelditzeko zabaldu zen droga Euskal Herrian, gazteria deusezten ahalegindu ziren. Eta hori ez da publikoki onartzeko kontua.

**Ez da zure kasua izan, baina estereotipo batek artista eta droga elkarren lagun egiten ditu.**

Artistak eta sentsibilitateak zerikusi handia dutela pentsatu izan dut beti. Nik uste dut artista jende sentibera izaten dela, eta jende sentibera ahula izaten da gizarte indarren aurrean, olatuak erraz eramaten du ahula. Artistak bere indar guztia tailerrean eta estudioan uzten du, eta handik kanpora indar gutxirekin egoten da. Hori dela eta mugimendu hark jende sentibera asko harrapatu zuen. Euskal Herriatik kanpora joanez gero, Ameriketara, Andy Warholl edo Basquiak hor daude adibide moduan. Biak ere abangoardia ziren pintura munduan, Basquiak nik izugarri miresten dut, hogeitau urte gutxirekin sekulako tipoa zen, eta gaindosiarekin hil zen.



PHOTO © TXOMIN TXUEKA

“Inspirazioa existitzen da baina lanean harrapa zaitzala”; arrazoi du Picassok, inspirazioa tailerrean baino ez da iristen, lanean ari zarela. Batzuei entzun izan diet kalean hiru kanuto erreta dabiltzanean iristen zaizkiela irudimen printzak, gezur hutsa. Ideiak agian iritsiko zaizkie, baina tailerrera iristerako ketan galdu dira”.

### Tristezia bada sortzeko sentimendu aberatsa?

Bai, momentu aberatsenetakoa da. Askotan momentu gogorrek aberasten zaituzte, eta norbait falta duzunean, eta zerbait gertatu zaizunean, sortzeko gai asko izaten duzu. Askotan ibilbide bat markatzen duten lanak gogortasunetik jaiotzen dira. Eta bestalde, Zumetak askotan esan izan dit, “momentu txarrak gogortu egiten dik pertsona, eta orduan ikasten duk”. Eta arrazoi duela uste dut, momentuan bertan ez da gozoa izaten, baina momentu gogorak bizitzek kalte baino on gehiago egiten du gerorako.

### Inpresioei eta sentsazioei forma ematen asko kostatzen da?

Ez naiz kontziente hori egiten dudanean, beraz ez zait kostatzen, kontziente izango banintz eta horretan hasiko banintz zaila izango litzaidake. Dena den nire pinturak berez hitz egiten du. Eta adibidez nik inoiz ez diot jartzen obrari izenbururik, obra bukatzen duena ikuslea delako.

### Batzuetan, pentsatzen duguna esan beharrean, esan ondoren oharitzen gara gure pentsamenduz. Zuk, sentitzen duzuna margotzen duzu ala margotu eta gero sentitzen duzu?

Askotan egin eta gero hasten naiz margotu dudana sentitzen, egin ondoren denbora asko pasatzen baitut egindakoa ikusten, eta sentitzen. Eta gozatu egiten dut. Koadroa egiterako orduan askotan sufritu egiten dut, ez da batere erraza, botatzen ari naiz barrukoa, haserre edo sufrimenduan, eta bukatutakoan disfrutatzen ari naizela sentitzen dut, eta orduak pasa ditzaket isil-isilik begira. Egindakoa jasotzen ari naiz, inkontzienteki hustutakoa kontzientera biltzen.

### Noiz jartzen diozu firma?

Sarritan ez diot botatzen. Ez dauka firmak inportantziarik, eta norbaitek etxera eramaten duenean, edo saltzen denean, edo eskatzen

didatenean jartzen dut. Bestela gehienez nire lana firmatu gabe egoten da. Saldutako etxera itzuli behar izan dut askotan, norbaitek deitu eta “hi, firmatu gabe ekarri didak koadroa” kexatuta. Firmatu gabe ere uste dut garbi dagoela nire koadroak nik eginak direla.

### Artista batek sortzaile ona bezain zabaltzaile edo saltzaile ona izan behar al du?

Ez dauka zerikusirik, saltzaile ona bada hobeto biziko da, baina ez du zertan izan.

### Zu saltzaile ona zara?

Ez, baina ikasten den kontua da. Dena den, gaur egun galeriak dira gure irtenbidea, eta beraz atjoka ibiltzen gara batarekin eta bestearekin. Zorionez nire lanak bizirauteko beste ematen dit, baditut galeria horiek, eta gustura nago. Momentu honetan Okendon daukat, baina Bartzelonako galeria batera ere obra eramatekoa naiz laster, hurrengo urtean Donostian beste erakusketa bat lotua dut; bideak baditut.

### Baloratua sentitzen zara?

Bai. Nire inguruan baloratua sentitzen naiz, eta hori da garrantzitsua, ez dut kanpoan baloratua izan nahi, horrek ez dit inporta. Nire lana inguruko jendeak eta nik neuk baloratzen dut, eta hori da funtsezkoa. Nik neuretzat egiten baitut lana, hori oso garbi daukat, ez banu niretzako egingo aspaldi saldua neukan tailer osoa.

### Kolpe asko jaso dituzu?

Asko jaso izan ditut, eta egunero jasotzen jarraitzen dut. Betiko kontua da, instituzioetatik ez dugu ezer jasotzen. Nola jasoko dugu ba? Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak Guggenheimerako obra amerikarra erosteko dibisen aldaketan bakarrik sei milioi euro galdu zituen eta! Sei milioi euro erre ziren dirua euroetatik dolarrera aldatze hutsean, pentsa nola gabiltzan.

## Esperimantazioa bide

“Beti ari naiz ikasten. Nik erabiltzen ditudan materialak ez dira ohikoak, ez dut oleoa erabiltzen, ez dut akuarela erabiltzen, material denak industrialak dira, beraiek gabe ez dakit lehenago nola moldatu izan diren, eta beti ari naiz esperimentatzen. Beti ofizioa ikasten. Kimiko bat laborategian bezala aritzen naiz; espazioarekin, bolumenarekin, kolorearekin, edozein materialekin”.



**Arte inbertsoreak nolakoak dira?**

Inbertsoreak ez du arriskatzen, beti segurura jotzen du. Gure artearen mundu honetan hiru maila daude: lehenik bizi direnak, alegia ondo saltzen dutenak, bigarrenik bizirauten dugunak, eta azkenik beste asko daude ez dutenak bizirauten, eta ez direnak bizi, oso gaizki daude.

**Inbertsorea normalean jakituna izaten da?**

Beste batek aholkaturik xahutzen du dirua. Eta inbertsoreek burtsako espekulatzailen ahalmen bera dute. Kritikariekin hitz egiten dute, komunikabideekin, eta izen bat gora altxatzeko agintzen diete, eta derrepente gauek goizera hor goian ikusten duzu. Zeurekiko pentsatzen duzu: "Honek zer demontre egin du hor egoteko?" Begiratu atzera eta ez dauka ezer, baina han goian dago. Erori ere halaxe egiten da gero.

**Izen batzuk ikusten dizkizut begien atzean jiraka.**  
Ez noa esatera, baina badira, bai.

**Euskal Herrian ere bai?**

Bai noski, Euskal Herrian ere hala da kontua.

**Zein da zure gustuko kritikaria?**

Niri gehienbat haurren begirada gustatzen zait. Helduak baino libreagoak dira. Maiz, nire auzoko haurrak, Arroakoak, hartu eta erakusketetara eramaten ditut, ea zer dioten. Zahar jendearen ikuspegia ere maite dut, jubilatuen eta. "Kultura" esaten zaion hori gehiegi jaso gabeko euskaldun zaharrak, sartzen direnak nire erakusketa batera, eta esaten didatenak, "joder, ez diat tutik ulertzen, baina zein gustura egon naizen horien aurrean", loturarik gabe hitz egiten dizute, eta hori gustatzen zait niri. Hitz handietako kritika ez zait hainbeste interesatzen. Eta ez dakit horregatik den edo, baina aspaldian erakusketak ikustera joateko ohitura gutxi dut, gutxi ateratzen naiz. Uste dut esponja bete samarra daukadala. Askok ikusi nuen lehen, eta hustu egin behar dut. Lehen ARCOko feriara joan eta hiru egun oso pasatuta ere ez nuen astirik izaten dena ikusteko. Denbora gehiago behar nuen. Gaur egun arratsalde batean aspertu egiten naiz. Bi elementu ikusten ditut interesgarriak eta hortik aurrera errepikapena iruditzen zait.

**Baina artegintzaren ontzia kritikak gidatzen du.**


Hala da zoritxarrez, gaur egun artea kritikak diotenaren arabera baloratzen da, batzuetan iruditzen zait kritikariak lehenago daudela artistak baino. Eta kritikariek hemendik kanpo egiten den lana baloratzen dute. Kanpoan bide bat markatzen baldin bada eta hemen norbaitek bide horretatik jarraitzen baldin badu haren bidea da ona. Aldiz hemen norbait bere zuloan lanean ari bada, bere nortasuna lantzen eta bere bidea egiten, hori kritikarientzat ez da existitzen, komunikabide handietan azaltzen ez dena ez baita ezagutzen. ■


**Narkis Balentziaga**

"Narkis Balentziaga, Oteizarekin Argentinara joan zena, gure auzokoa zen, baina hogeita bederatzi urterekin hil zen Argentinan. Gure aitak ezagutu zuen. Egun batean Narkisen anaiari esan zion ni, mutikoa artean, arte zalea nintzela, eta hala Narkisen obra ikustera eraman ninduen. Gerora, Narkisen heriotzaren berrogeita hamargarren urteurrenean, Zumaiako arte taldeak Narkisen obrarekin erakusketa muntatu genuen. Erakusketaren bukaeran Jorge Oteiza hunkituta etorri zen guregana. Gure aurrean eseri zen aulki batean, eta Narkisez hizketan hasi zen, bere esperientzia kontatzen, algaraka oraintxe, eta oraintxe malkoa zeriola. Eta harrিতuta begiratzen zigun: 'Instituzioek ez dute egin, inork ez du egin, eta zuek, ume batzuk izanda, nola ostia egin duzue kontu hau?'".

# Olaberriako zirkuitua

**Gida eskola      Karting-a**





Gainera auzoa, Z/G  
20212 Olaberria  
☎ 943 16 08 62  
[www.vilarinomotor.com](http://www.vilarinomotor.com)  
[info@vilarinomotor.com](mailto:info@vilarinomotor.com)